




¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

Oztopoak gaindituz, markak hautsiz



STEE-EILAS



Harremanak berdintasunean



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

SARRERA

SARRERA

Historia irabazleek kontatzen dutela jakina da eta emakumeek bataila guztietan menperatuta izan gara beti, ez soilik gudako batailetan. Horregatik, historia berriz kontatzea premiazkoa da, zehazki gertatu zen bezala kontatzea, emakumeri merezi duten dimentsioa emanez, uko egiten dituen historiako liburuen isiltasunetik ateratzen eta merezi duten izandako protagonismoa emanez.

Jakituria hegemonikoek, diskurtso erlijiosotik zientifikora, emakumeak menpeko izaki bezala irudikatu egin dituzte, mundua interpretatzeko gaitasunik gabe, seme-alabak zaintzeko eta etxean gordeta egoteko jaiokak, inongo kezka kultura edo politikorik gabe.

Baina pasibotasunera bihurtzeko interesen kontra, emakumeek patriarkatuaren aginduei aurka eginez, askotan gizon baten itzalean edo goitizen bat erabiliz izan bazen, arlo desberdinetan garatu zituzten beren jarduerak. Ezaguera mundura heldu ziren eta kulturarako lan garrantzitsuak utzi zituzten, beren bizitzei zein munduko posizioei zentzua eman zieten beren esperientzietan zein beste jakiteetan oinarritutako emakumezkoen jakituria bildu zuten.

Hala ere, nahiz eta gaur egun emakumeek hitza duten eta eszenatokian dauden, ez zaie ikusten. Gutxi badira ere, emakumeek instituzioen, kongresu eta departamenduen buru dira, baina hala ere, ez zaie ikusten. Margotu, idatzi, konposatu, orkestrak zuzentzen dituzte, artea sortzen dute, kirol txapelketa eta jarduera desberdinetan parte hartzen dute eta ez zaie ikusten.

Beren izenak isildu egiten dira edo kanonetik baztertzen zaie. Izendatzen ez bazaie ez dira ezer. Emakumeen ikustasuna onartuta dago baldin eta gizonek sortutako kanonen barruan dauden.

Horregatik izen horiek guztiak esan eta idatzi egin behar dira ikusgarri jartzeko, izan ez zuten bizitza emateko.

Beste urtetako unitatean literaturan, artean edota historian zehar emakumeen ikustasuna landu dugu. Oraingoan kirol mundura dedikatu eta nabarmentzen diren emakumeengan erreparatu nahi dugu. Maskulinizatuta dagoen beste esparru bat non emakumeen presentzia, profesional nahiz ikusle bezala, oso txikia den.

Ibone Belaustegigoitia, Amaia Andrés, Igone Arribas, Ainhoa Artolazabal, Mirian Bravo, Cristina Castro, Maialen Chorrout, Paricia Elorza, Erdoitza Goikoetxea, Rita Maria Oraá, Eli Pinedo, Zuriñe Rodriguez, Joane Somarriba, Mainer Unda, Rocio Ybarra, Maite Zuñiga,... Emakume horiek guztiak olinpikoak izan dira, haietako batzuk ere urrezko dominaren garaileak eta beren izenak oso leku gutxi izan dute komunikabideetan. Ikusgai jartzea beraiekin dugun nolabaiteko zorra da, baita gure ikasleekin ere neskek esparru honetan ere erreferenterik ez dutelako.



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

ABIAPUNTUA

Abiapuntu giza STEILASen kartela proposatzen dugu.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Ogibide eta aktibitate desberdinetan eta kirolean bereziki, emakumeen presentzia eta jokatzeko duten paperari buruz gogoeta egitea, beren ikusezintasuna, egoera eta estereotipo desberdinak aztertuz, ikasleriak norberaren garapenean zein jendartearen orokorrean eta emakumeengan bereziki, berdintasun erreala lortzeko duten eraginaz ohartzeko.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Ogibide, aktibitate eta kirol desberdinak aztertzea emakumeen presentziaz kontzientzia hartzeko.
- Presentzia hori baldintzatzen duten faktore desberdinei buruz hausnartzea.
- Jendartearen eraginaz zein estereotipoak aztertzea, bakoitzaren alde baikor eta ezkorak azaleratuz, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko existitzen diren oztopoak aztertzea, haietatik ohartzeko eta kontra borrokatu ahal izateko.
- Orain arte eman diren lorpen zein hobekuntzaz ohartzeko, positiboki baloratuz, atzerapenak ekiditeko.
- Ikasleen auto-estimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izateko.
- Gaitasun sozialak landu (bai/ez esan argudiatu, eskatu, nahia adierazi ...), horretarako behar diren egoerak eskainiz, libre izaten bizitzen ikasteko.

ONARRIZKO GAITASUNAK

- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

EDUKIAK

- Kirol desberdinak
- Pelikula eta bideo desberdinen ikuskapena
- Informazioaren bilaketa selektiboa.
- Adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Giza garapenerako orokorrean eta kirolean bereziki gizonen eta emakumeen ekarpenen azterketa.
- Emakumeen egoerei buruzko sentsibilizazioa.
- Elkar lanerako eta lankidetzarako jarrera.
- Hainbat gaitasun sozial.
- Irizpide kritikoz jokatzeko ahalmena.
- Emakumei egokitzen zaizkien rolak.
- Berdintasunezko harremanak ezartzea.



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

JARDUERAK

GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA:

Oztopoak gaindituz

HAUR, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

Materialak: STEE-EILASeko kartela, arbela.

Denbora: 3 saio.

Taldekatzea: Banaka, talde txikia, talde handia.

Lehenengo saioa: Oztopoak.

Garapena:

1. Irakasleak STEE-EILASeko kartela erakutsi eta ikasleei ea zer ulertzen duten galdetuko die. (*Ideen zaparrada erabil dezakegu dinamika bezala, edo borobilean eserita bururatzen zaiguna banan banan esan ...*)
2. Ideia nagusiak jasoko dira atentzioa gehien eman duten gauzetan indarra jarriz. (*denak emakumeak izatea, ogibide desberdinak islatuta daudela, lasterketa, saltoak, oztopoak..*)
3. Bukatzeko atentzioa oztopo-lasterketan jarriko da eta kartelaren esanahian
4. Ondorioak aterako dira:
 - Zein da oztopoen esanahia?
 - Eta idatzita dutena?

(*Historikoki emakume izateak emakume askoren etorkizuna baldintzatu du: norberaren errealizazioa, ogibidea eta giza proiektzioa. Horrek hainbat kasutan bizitza osoa oztopo-lasterketa izango balitz bezala pasatzea suposatzen die*)

- Noizbait sentitu al zara oztopo-lasterketa batean egongo bazina bezala?

Bigarren eta hirugarren saioa: Oztopoak gaindituz.

Garapena:

1. Irakasleak STEE-EILASeko kartela berriz ikusgai jarriko du eta aurreko saioko ondorioak berreskuratuko ditu.
2. Ikasleei kartelean agertzen diren emakumeen ogibidea edo familia profesionalean pentsatzeko eskatuko die.
3. Taldea 5 taldetan banatuko du eta talde bakoitzari familia profesional baten informazioa bilatzeko eskatuko dio eta batez ere bakoitzean emakumeek jokatu duten papera. (familia profesionalak ondorengoak izan daitezke: ZIENTZIAK: medikuntza, biologia, fisika, teknologia... ARTEAK: zinea, telebista, idazketa, pintura, eskultura... KIROLA, LEGEGINTZA, INGENIERITZAK: arkitektura, eraikuntza, elektrizitatea, mantentamendua...
 - Ogibide horiei buruz daukaten informazioa
 - Arlo horietan lana egiten duten gizonen kopurua eta emakumezkoena
 - Arlo horretan zein urtetan joan zen unibertsitatera lehenengo aldiz? Eta lehenengo emakumea noiz?
 - Emakume eta gizon esanguratsuak
 - ...



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

4. Komunean jarri eta ondorioak aterako dira:

- Aktibitatea zaila edo erreza izan al da?, zergatik?
- Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunik topatu al duzu?, Zeintzuk?
- Zure ustez zergatik ematen dira desberdintasun hauek?
- Ba al daude gizonezkoen eta emakumezkoen ogibideak? Edo denok lan berdinak egin ditzakegu?
- Arreta zerk deitu dizu gehien? Zergatik?
- Zure ustez emakumeek oztopo gehiago izan al dute edo al dute?



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

KIROLA ETA BERE PROTAGONISTAK

Materialak: Horma-iruditako papera, ordenagailua, Internet, arkatza, rotuladoreak, kortxoa

Denbora: Hiru saio

Taldekatzea: Talde handia, bikoteka.

Lehenengo Saioa:

Garapena:

1. Jarduera hasi baino lehen, irakasleak ikasleei kiroletarako prentsa eraman zezaten eskatuko die.
2. Bildu eta gero berriak bi taldetan banatzeko eskatuko die. Alde batean berriak non protagonistak gizonezkoak diren eta bestean neskek protagonistak direla. Kortxoan edo arbelean itsatsiko dira.
3. Behin sailkapena eginda, irakasleak debatea bultzatuko du: Nori buruz daude berri gehiago, emakumeri edo gizonezkoei buruz? Zergatik uste duzu horrela dela? Gizonezko eta emakumezko kirolak daudela uste al duzu edo kirol denak denentzako al dira?
4. Horma-iruditako paperean iritzi desberdinak idatziko ditugu eta unitatearen bukaeran baloratzeko gordeko ditugu.

Bigarren Saioa:

Garapena:

1. Ideia zaparrada baten bitartez irakasleak arbelean ikasleek ezagutzen dituzten kirol desberdinen zerrenda idatziko du. Ikasleak binaka jarriko dira eta zozketa baten bitartez bikote bakoitzari bi kirol emango zaizkio.
2. Bikote bakoitzak Interneten kirol horiei buruzko informazio bilatu beharko du eta ondorengo galderei erantzungo die:
 - Taldeko kirola edo banakako kirola al da?
 - Gizonezko eta emakumezkoek praktikatzan al dute? Nesken eta mutilen ekipoak al daude?
 - Zer motatako ekipamendu eta tresnak behar dira?
 - Ikasleek kirol horien argazki bat edo berri bat bilatu beharko dute.
3. Bildutako datuekin bikote bakoitzak egokitu zaizkion kirol bakoitzeko fitxa bat osatuko du.
4. Talde handian aurkeztuko dituzte eta klaseko hormetan jarriko dira.

Hirugarren Saioa:

Garapena:

1. Kirol desberdinei buruz jasotako datuak aurrean izanda komunean jarriko dira. Zer kirol praktikatu egiten duten edo praktikatzea gustatuko litzaiekeen. Aurreko saioetan ateratako ondorioekin kontrastatuko dira ea iritzien aldaketa egon den edota zerbait berria ikasi duten jakiteko.
BHrako proposatutako jarduerak zein I eta III eranskinak ere baliogarriak izan daitezke.
2. Bukatzeko irakasleak II eranskineko taula aurkeztuko du eta ikasleei ondorioak atera ditzaten eskatuko die.



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

BIGARREN HEZKUNTZA

Materialak: Arbela, Eranskin I, II eta III, Internet.

Denbora: Bi edo hiru saio.

Taldekatzea: Banaka, talde txikia, talde handia.

HH eta LHrako proposatutako jarduerak adinari moldatuta ere egokiak izan daitezke.

Lehenengo saioa: Desberdintasunak ikertzen

Garapena:

1. Irakasleak eranskineko A IRUDIA erakutsiko die ikasleei (Behobiako lasterketa) eta galdetuko die ea zerbait nabarmenduko luketen. Ondoren B IRUDIA (Lilaton lasterketa) erakutsiko die eta desberdintasunak bilatu ditzaten eskatuko die.
2. Irakasleak hausnarketa bideratuko du, Behobia ez dela soilik gizonezkoen lasterketa baina ez dela emakumezkoen ikusten esanez. *(Horregatik batzuetan egin behar ditugu soilik emakumeentzako diren ekintzak etb.)*
3. Ikasleei mundu mailan egiten diren Lilatoi antzerako lasterketen edo beste kirolen informazioa bilatzeko eskatuko zaie.
4. Horretaz gain irakaslea Lilatonaren eta beste proben nortasun ludikoari buruz mintzatuko da, txapelketa alde batera uzten duena aniztasuna sustatzeko. Lasterketari erreparatzen badiogu honakoak ikusi ditzakegu: gurpildun aukiak, jende edadetua, ume aukiak etab.
5. Ondorioak aterako dira:
 - Zein da kirolaren helburua?
 - Denek hartu al dezakegu parte kirolean modu berdinean?
 - Zergatik uste duzu egiten dugula emakumeok kirol gutxiago?
 - Kirol berdina egiten al ditugu emakume eta gizonezkoak? Ze balioestea du emakumezkoen kirolak? Eta gizonezkoena?

Bigarren saioa: Balioeste berdina denentzat?

Garapena:

1. Irakasleak ikaslek gizonezko kirolari famatuak aipa ditzaten eskatuko die. Ondoren emakumezko kirolari famatuak aipa ditzaten eskatuko die. *(Argi geldituko da gizonezkoen kirolak ospe gehiago duela)*
2. Horretaz gain irakasleak ikasleei azalduko die emakumezkoek ezin izaten dutela profesionalak izan kirol munduan ez baitute soldata duin bat jasotzen (Bera Bera kirol taldearen adibidea azalduko die, Eranskina leko 2. atala). Adibide hau futbolarien kasuarekin konparatuko du desberdintasuna nabarmenduz.
3. Hausnarketa honen ondoren talde handia 4 taldetan banatuko da. Talde bakoitzak emakumezko kirolari famatu bat aukeratu beharko du eta bere lorpenei buruzko aurkezpen txiki bat egin beharko du.

Irakaslea eredu gisa Eranskin leko 3. atala Kathrine Switzeren kasua azalduko du. (Maratoi baten parte hartu zuen lehenengo emakumea izan zen Kathrin Switzer, gizonezkoak bera kanporatzen saiatu zirelarik. Eranskineko estekan dagoen bideoa erabili daiteke.)

4. Bukatzeko irakasleak II eranskineko taula aurkeztuko du eta ikasleei ondorioak atera ditzaten eskatuko die.

Hirugarren saioa: Emakume kirolariei elkarrizketak

Garapena:

1. Irakasleak II eranskineko elkarrizketak irakurri edo banatuko ditu eta aurreko saioan aukeratutako emakume kirolariekin konparatuko dituzte. Antzerakoak dira???
2. Eredu gisa hartuta ezagutzen duten baina ospetsuak ez diren beste kirolariei egiteko eskatuko die.



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

EBALUAZIOA

Kartelarekin landuko den lehenengo jarduera hasierako ebaluaziorako erabiliko dugu. Modu horretan arlo laboral zein kirol desberdinetan emakumeen partaidetzari buruzko gure ikasleen ezagutzaz onartuko gara eta indarra non jarri jakingo dugu,

Unitatea lantzen den bitartean etengabeko ebaluazioa egingo da, besteak beste, behean aipatzen diren teknika eta tresnak erabiliz.

Unitatea bukatzean berriz ikasleen lana baloratuko da markatutako irizpideak jarraituz. Ikasleek ere beraien auto-ebaluazioa eta unitatearen ebaluazioa egin dezakete.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jarduera beraren ebaluazioa egingo dugu, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu dugun gela, denbora, ikasleak motibatuta egon diren...guzti hau, behar izanez gero, hurrengo jarduerarako praktika egokitu eta unitatearen bukaeran ezarritako helburuak bete ahal izateko.

Ebaluazio irizpideak:

- Ea errealitatearen azterketa kritikoa egiten duen.
- Ea gizartean ematen diren aldaketen kontzientzia hartzen ari den.
- Ea emakume eta gizonen arteko berdintasunaren garrantziaz konturatzen den.
- Ea berdintasunean aurrerapen edo atzerapenak egiteko jendartearen eraginaz ohartzen den.
- Ea emakume mugimenduek giza garapenerako izan duten garrantziaz ulertzen duen.
- Ea jardueretan parte hartu duen.
- Ea gaia ikuspuntu kritikoarekin ikusten hasi den.
- Ea errespetuz jokatu duen besteen iritziekiko.

Ebaluaziorako teknika: Behaketa.

Ebaluaziorako tresnak:

- Irakaslearen egunerokoa
- Ikasle bakoitzaren historiala. Bertan unitatearen garapenean zehar bakoitzaren lanaren balorazioa zein ekarpenak jasoko dira
- Egindako lanak.

Ikasleen ebaluazioa unitatearekiko: Elkarrizketarako gidoia:

- Zer da gehien eta gutxien gustatu zaiena eta zergatik.
- Zer da ikasi dutena.
- Zerk harritu ditu gehien.
- Zer aldatuko luketen.



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

BALIABIDEAK

- “Itxaso proiektua”: Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neska gazteak kirol praktika uztera eramaten dituzten zergatiak eta arazo horretan esku hartzeko proposamenak. KIROLARTE, Gipuzkoako foru aldundia

Patioak eta jolasteko guneak:

- elgoiberdin.wordpress.com Herriko espazioen banaketa genero ikuspuntutik
- <http://urbesforall.com/category/patios-escolares-eskola-patioak/>. Eskolako patioak
- http://www.academia.edu/6467293/ikastetxeetako_Jolastokien_Erabilera_Genero_Ikuspegitik_eta_Eskuhar-tzerako_Irizpide_Gida_III_ERANSKINA_-MEMORIA_-1_15 Eskolako patioak
- <https://mendaronguraso.wordpress.com/tag/el-patio-de-la-ikastola/>
- Berdintasunezko jolasa: Hezkidetzaren eta espazioaren inguruko baliabide gida. Hernaniko udala: http://www.hernani.eus/es/ficheros/9_11451es.pdf
- Sexismoaren diagnostika jolasean eta kirolean: <http://www.sortzen.org/sortzen-EUS/htm/formacion-sortzen-bilbao/sexismoa-kirolean-diagnostika-sortzen-consultoria.pdf>

Kirola eta hezkidetzaren:

- La coeducación en el deporte en edad escolar: Begoña Llorente Pastor: http://www.mujierydeporte.org/documentos/docs/ca_CoeducacionDeporte_2002.pdf

Filmak:

- “Quiero ser como Beckham” Gurinder Chadha

Berriak:

- http://www.elconfidencial.com/deportes/otros-deportes/2014-07-09/un-top-y-una-braga-la-norma-que-desata-la-ira-de-las-jugadoras-de-balonmano-playa_158981/
- <http://m.20minutos.es/deportes/noticia/alejandra-quereda-oro-mundial-gimnasia-ritmica-mazas-2251427/0/>

Beste batzuk:

- http://www.ehu.es/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/egoeraren-txostena/-/asset_publisher/nnM3/content/mujeres-y-hombres-en-la-upv-ehu-ano-2011?redirect=http%3A%2F%2Fwww.ehu.es%2Fes%2Fweb%2Fberdintasuna-direccionparalaigualdad%2Fegoeraren-txostena%3Fp_id%3D101_INSTANCE_nnM3%26p_p_lifecycle%3D0%26p_p_state%3Dnormal%26p_p_mode%3Dview%26p_p_col_id%3Dcolumn-2%26p_p_col_count%3D1 UPV bilakaera emakume eta gizoneen kopuruari dagokionez



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

I ERANSKINA

1.



A IRUDIA



B IRUDIA

2. "El equipo de balonmano a rechazado jugar la competición continental debido a que no puede asumir los gastos que causa dicha competición."
<http://www.eitb.eus/es/deportes/videos/detalle/2321684/bera-bera-renuncia-jugar-liga-campeones>
3. <http://instinto-deportivo.blogspot.com.es/2014/05/kathrine-switzer-primera-mujer-en.html>



¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

II ERANSKINA



Aitziber Ibarbia 37 urte. Zizurkilen bizi da. Mendiko lasterketako Euskal Selektioko kidea. Herrian emakume talde bat korrikarako entrenatzen du.

1. Nola aukeratu zenuen kirola hau?

Umetan atletismoa egiten nuen 15 urte arte edo. Ondoren kirol desberdinekin hasi nintzen probatzen, bizikleta, triatloian hasi nintzen baina igeriketan ez nengoen gustura eta utzi nuen. Triatloian ibiltzen ginenen artean mendirako afizio handia zegoen eta denbora librean mendian ibiltzen ginen, astebururo Pirineotara joaten ginen, Andeetan ere egon ginen. Himalaya ondoko Karakorum mendikatean, Gashebrum II mendia egin genuen, baina behin esperientzia izanda nahikoa.

Mendi martxak egiten genituen ere eta handik mendi lasterketak egiteko gogoia piztu zen. Hasieran mendirako prestaketa bezala izan zen baina orain horretan nabil.

2. Zure entrenamenduak aparte, herrian emakume talde bat entrenatzen duzu, nola sortu zen ideia hori?

Zizurkilen ez dugu polikiroldegirik eta kirol eskaintza urria da. Nesken artean kirol aldetik hutsune nabarmena zegoela ikusten zen. Udaleko kirol teknikariak proposatu zidan, ea zerbait egin ote genezakeen emakumeen artean korrikarako afizioa pizteko. Horrela, ostiral arratsaldeetan biltzeko hitzordua jarri genuen eta deialdia publiko egin. Oso harrera ona izan zuen deialdiak.

Hasieran 40 bat apuntatu ziren, baina gero umeak direla, lana... jarraitu 15 bat jarraitzen dute, 35-45 urte artekoak dira denak, atletismotik datozen 4 gazte izan ezik 15-16 urtetakoak. Luzamenduak egiten ditugu, 7 bat km korri egin eta berriz luzamenduak. Eguraldi txarra badago, indarra lantzeko ariketak eta gimnasia egiten dugu. Hasieran ez zuten norekin hasi zer edozer egiten edo lotsa ematen zien bakarrik ibiltzea. Jarri genuen helburua horrelako egoerak normalizatzea eta lortu dugu; dagoeneko emakume hauetako batzuk beren kabuz hasiak dira korrika, eta aurten San Silbestren parte hartu dugu.

3. Bi ume dituzu, nola moldatzen zara lana egiteko eta entrenatzeko?

Umeak jaio zirenean lasterketak utzi nituen, gero txikiak zirenean etxean entrenatzen nuen, orain ondo moldatzen naiz arratsaldetan lana egiten dudalako eta goizetan denbora ateratzen dut.

4. Bidean oztopoak topatu al dituzu, zeintzuk? edo Gertuko inguruak, familiak, lagunak babestu eta lagundu zaitu?

Hemen bizitzen erreza da. Oztopoak baino ikasten ari nintzen garaia (nahiz eta horretan lanik ez egin Arkitektura ikasi nuen) bakardadea 20-22 urte nituen garaia gogorra izan zen, baina egunero ordu erdi bat entrenatzeko ateratzen nuen.

5. Kirol hau nahiko berria da eta gehien bat gizonezkoek praktikatzten dute. Emakume batentzat bereziki gogorra dela uste al duzu? Zergatik?, Maila honetan zein izan da zure esperientzia? Nola tratatu zaituzte zure gizonezko kideek? Eta emakumezkoek?

Bai %5 izango gara emakumeak, muskularki oso kirol gogorra da, baina erritmoa jartzea da. Bakoitzak be-rea jartzen du. Nire ustez sailena animatzea dela, buruan sartzea edozeinek egin dezakeela. Baina egia da 25kmtik gora direla lasterketa batzuk eta han 200 gizonetik 5 emakume egongo gara.

Ez da beste kirol bat baino gogorragoa edo asfaltoan korritzea baino gogorragoa eta han emakume asko ikusten da dagoeneko. Hemen indar gehiago behar da, baina aldapa oso gogorra bada oinez igotzen da.

Kirol honetan ez dago diskriminazio askorik. Euskal Herriko selekzioan 5 gizon eta 4 emakume gaude, lasterketaren arabera kopurua alda daiteke, baina horretan mugitzen gara. Eta adibidez sariak berdinak dira, hau da 5 sari badaude gizonezkoentzat diru kopuru berdina ematen duten 5 sari daude emakumeentzat. Horretan diruagatik, gizonekin arazoak izaten ditugu suertatu izan da bakarrik bost emakume parte izatea eta denak saria jasotzea, baina guk ez daukagu errua, zenbat emakume parte hartzen duten ez dago gure eskutan.





¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

Mendian korritzen ari garela asko animatzen gaituzte. Sare sozialetan ere jasotzen ditugun komentarioak oso positiboak dira

6. Gizona izan bazina zure traiektoia desberdina izango zela uste al duzu?

Bai, futbolista izango nintzen seguru. Txikitari beti mutilekin ibiltzen nintzen futbolean, iritsi zen momentu bat etxean ez nindutela usten 12-13 urterekin neska bakarra nintzen eta. Garai hartan ez zegoen nesken ekiporik Añorgakoa existitzen zen bakarrik.

7. Aukera izan bazenu kirola hau berriz aukeratako zenuke?

Aukera izango banu gaur egun futbolean arituko nintzen. Oraindik frontoian noizbehinka pikatzen gara eta mutilekin jokatzen dut.

Zoritxarrez, gaur egun futbolean gauzak ez dira aldatu. Nik seme-alabaren eskolako kirola eramaten dut eta mutilek neskei ez diete jokatzen usten edo baloia ez diete pasatzen. Nik atletismoa eramaten dut eta neska gehiago dago.

8. Kirola hau zure seme-alabarentzat gustatuko litzazuke edo hasten ari diren neskentzat, zer esango zenieke?

Bai. Orokorrean kirola egitea esango nieke, denetik probatzea. Gero gustuko duten horretan saiatzea. Guk hemen herrian frontoia erabiltzen dugu asko, palan, rokodromoan, mendian probatzea. Plan asko egin daiteke, taldeko plan politak.

9. Zer aldatu edo aportatuko zenuke kirol hau beren proiektzio soziala edo berdintasun aukerak hobetzeko?

Nik praktikatzen dudan kirola baino orokorrean, umeetatik instituzioen laguntza ezinbestekoa da. Transmittitu behar dugun mezua denok aukera berdinak ditugula da, ohiturak landu behar dira. 12-13 urte arte neskek aritzen dira baina gero uzten dute. Adin horretan jarri behar da indarra.

Beste aldetik neskek ez diete kirolari etorkizun profesionala ikusten. Irteera gehiago eskaini beharko zitzaizkien.

Kirolaren filosofia landu egin behar da, osasuna, taldean egiteko gauzak... Beste aldetik instalazioak errebisatu egin behar dira. Mutilek futbolarekin espazio osoa okupatzen dute eta hor orokorrean neskek ez daude onartuta. Eskolatik eta Herritik beste ekintza batzuk bultzatu egin behar dira, patinak, ginkanak... gauza asko egin daitezke.





¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

ANEXO II



Myriam Elorza: Ibarra emakumeen soka-tira taldeko partaidea, giza frogetan ere parte hartzen du. 33 urte.

Soka tira herri kirol bat da. Partaide ezberdinez osatutako bi taldek soka baten alde bietan jarrita, sokari bere aldera tira egin behar diete. Talde bakoitzean 4 edo 8 lagun izaten dira.

Pisuaren arabera froga desberdinak egoten dira, taldeko partaideen pisuaren gehiketa kontutan hartuta:

MUTILAK : 4x4: 320kg eta 300kg; 8x8: 680kg – 640kg – 600kg eta 560kg

NESKAK: 4x4: 260kg; 8x8: 540kg eta 500kg

Neguan gomazko lurra baten gainean lehiatzen da eta udaran zelaian. 1900 eta 1920 artean gizonezkoak Olinpiar Jokoetan lehiatu ziren.

Giza proba herri kirol bat da, proba izeneko harri astun bat denbora mugatu batean ahalik eta distantzia luzeenean garraiatzean datza. Taldeka nahiz banaka jokatu daiteke eta harritik tiratzeko kirolaria kate batez **harrira** lotzen duen gerriko bat jartzen du.

Pertsona bakoitzak arnes bat darama, arnes hori kate batekin burdin batera lotuta doa eta aldi berean burdina harrira beste kate batekin.

1. Nola hasi zinen kirol hauetan?

Hasiera modu kasual baten izan zen. 2009ko udaran Ibarra emakumeen soka-tira taldeko partaidea, giza frogetan ere parte hartzen du. 33 urte. Apustu bat egin ziguten. Apustua onartu eta hasi ginen entrenatzen. Gutako inork esperientziarik ez zuenez batera entrenatzen hasi ginen eta jarraitu genuen.

2010n Nafarroako ekipotik mundialeko txapelketan parte hartzeko bi neska behar zituzten, oso denbora gutxi eraman arren entrenatzaileak parte hartzera animatu gintuen, 2 izan ginen aukeratuta. Bi medaila ekarri genituen.

Giza frogan beranduago hasi nintzen, probatu, gustatu eta jarraitu. Entrenamenduak gure kabuz egiten dugu, gutxi gora behera neska berdinak ibiltzen gara batean eta bestean.

Aurreko otsailean ere Irlandan egon ginen mundialean eta brontzea ekarri genuen, eta mutilek zilarra.

2. Bidean oztopoak topatu al dituzu, zeintzuk? edo Gertuko inguruak, familiak, lagunak babestu eta lagundu zaitu?

Garai baten orokorrean inork ez zuen ikusten neskak horrelako kirolan. Gaur egun desberdina da, Diputazioen (federazioaren) aldetik adibidez neska nahikorik ez daukagunean ekipoa osatzeko 8 lagun izan beharrean ekipo bakoitzean 6 izaten uzten digute eta modu horretan txapelketak egin ditzakegu.





¡Oztopoak gaindituz, markak hautsiz!

Familiak esaten dit ea zergatik ez dudan egiten "ligh"goa den beste kirolarik, baina ni oso gustura nago honetan eta...

Lagunak harritu egiten dira, guztiori gertatzen zaigu, norbait berri ezagutzen dugunean itxura ikusi, normal jantzita, apainduta, agian margotuta eta ez dute espero kirol mota hauek egiten ditugula, neska handiak, gizenak espero dute, eta ez da horrela. Alde horretatik irudia oso estereotipatuta dago, gu ikusita, lehenengo inpresioan ez dute sinesten horrelako gauzak egiteko gai garenik.

3. Kirol hauek tradizionalki gizonezkoek praktikatu dute. Emakume batentzat bereziki gogorra dela uste al duzu? Zergatik?, Maila honetan zein izan da zure esperientzia? Nola tratatu zaituzte zure gizonezko kideek? Eta emakumezkoek?

Bai Soka tira bai Giza Proba berez gogorrek dira. Soka tiran eskuak asko sufritzen dute, batez ere txapeketetan eta Giza Proba ere oso fisikoa da. Neska asko ama izaten direnean uste dute, badakizu, denbora, inguruak ez du laguntzen ... Bizkaian badago talde bat ia denak amak direnak, baina beraien mutilak ere sokatiran ibiltzen dira eta horrela errazagoa dute.

Ni ez naiz inoiz gaizki sentitu, agian beste kiroletan bai, ni gainera ez nintzen txikitan hasi, heldua nintzen nire irizpideak izateko

4. Gizona izan bazina zure traiektoria desberdina izango zela uste al duzu?

Askoz erresagoa dute, beraiek ez dute ekipoa osatzeko arazorik, ekipo gehiago dago ere bai. Gu sokatiran iaz 12 ginen orain 7, giza frogan 10 bat ibiliko gara.

5. Aukera izan bazenu kirola hau berriz aukeratako zenuke?
Bai jakina

6. Kirola hau ezagutzen ez dutenei edo hasten ari diren neskei zer esango zenieke?

Nik probatzeko esango nieke. Askotan kirolak moda kontua izaten dira eta neska txikien artean gimnasia erritmikoa edo baleta oso zabalduta dago. Bizi zaren inguruak ere eragin handia du eta nire ustez gazteek ez dute sufritzeko gogo handirik, baina animatzea da..

7. Zer aldatu edo aportatuko zenuke kirol hauek beren proiektzio soziala edo berdintasun aukerak hobetzeko?
Lehen esan dizudan bezala, nik ez dut desberdintasun handirik ikusten, federazioak eta entitate desberdinek laguntza asko ematen digute, akaso mutilek jasotzen dutena baino gehiago.

Beharbada kirol hauek eskoletan eta beste hainbat tokitan gehiago eskaini beharko liriateke, herri kirolen eskaintza oso murrizta da. Komunikabideetan ez dauka oihartzunik, futbola besterik ez dauka deiadarra.





¡Oztopoak gaituz, markak hautsiz!

III ERANSKINA

LONDRES 2012an ESPAÑAK LORTU ZITUEN DOMINAK



Nombre	Deporte	Competición	Fecha
--------	---------	-------------	-------

Oro

Joel González	Bonilla Taekwondo	-58 kg	8 de agosto
Marina Alabau	Vela	RS:X	7 de agosto
Támara Echegoyen			
Ángela Pumariega	Vela	Elliott 6m	11 de agosto
Sofía Toro			

Plata

Equipo masculino	Baloncesto	Torneo masculino 1	2 de agosto
Mireia Belmonte	Natación	200 m mariposa	1 de agosto
Mireia Belmonte	Natación	800 m libre	3 de agosto
Ona Carbonell			
Andrea Fuentes	Natación sincronizada	Dueto	7 de agosto
David Cal	Piragüismo	C-1 1000 m	8 de agosto
Saúl Craviotto	Piragüismo	K-1 200 m	11 de agosto
Brigitte Yagüe	Taekwondo	-49 kg	8 de agosto
Nicolás García Hemme	Taekwondo	-80 kg	10 de agosto
Javier Gómez	Noya	Triatlón Individual	7 de agosto
Equipo femenino	Waterpolo	Torneo femenino	9 de agosto

Bronce

Equipo femenino	Balonmano	Torneo femenino	11 de agosto
Maidier Unda	Lucha libre	72 kg 9	de agosto
Ona Carbonell			
Andrea Fuentes			
Clara Basiana			
Alba Cabello			
Margalida Crespi	Natación sincronizada	Equipo	10 de agosto
Thais Henríquez			
Paula Klamburg			
Irene Montrucchio			
Laia Pons Natación			
Maialen Chourraut	Piragüismo en eslalon	K-1	2 de agosto

